

Fondoaren inbertsio-politikaren printzipioen aitortpena

Caja Laboral Clásico Pentsio Plana

1.> Pentsio-planaren identifikazio-datuak

>> Pentsio Planaren datuak

a. Izena	Caja Laboral Clásico Pentsio Plana
b. Sistema	Sistema indibidualeko pentsio-plana
c. Identifikazio-zenbakia ¹	N0116

>> Pentsio Fondoaren datuak

a. Izena	Caja Laboral, Pentsio Fondoak
b. Sistema	Pentsio-fondo pertsonala
d. Identifikazio-zenbakia ¹	F0057

>> Pentsio-fondoaren erakunde gordailuzainaren datuak

a. Izena	Caja Laboral Popular Coop. de Crédito
b. Helbide soziala	Jose Maria Arizmendiarieta Pasealekua, zk.g. 20500 - Arrasate (Gipuzkoa)
c. Identifikazio-zenbakia	D0194

>> Pentsio Fondoaren erakunde gestorearen datuak eta Planaren erakunde gestorea:

a. Izena	Caja Laboral Pensiones S.A., G.F.P.
b. Helbide soziala	Jose Maria Arizmendiarieta pasealekua, zk.g. 20500 - Arrasate (Gipuzkoa)
c. Identifikazio-zenbakia	G0217

2.> Inbertsio-politikaren printzipioen aitortpena

- >> **Inbertsio-irizpidea** Fondoaren aktiboa partaideen eta onuradunen mesedetan inbertituko da, batez ere araututako merkatuetan, betiere segurtasuna, errentagarritasuna, likidezia, dibertsifikazioa, dispersioa, moneta-kongruentzia eta helburuetara moldatutako epeak aintzat hartuta.
- >> **Balorazio-irizpidea** Fondoko aktiboak merkatuko prezioaren edo burutzapen-balioaren arabera baloratuko dira, indarreko legediak finkatzen dituen gidalerroei jarraiki.
- >> **Banaketa estrategikoa** Planak ELGAko herrialdeetako errenta aldakorrean inbertitzen du ondarearen % 0 eta % 15 bitartean. Ondarearen % 3raino, berriz, garatzeko bidean dauden merkatuetan. Gainerako zorroa errenta finkoan eta/edo pribatuan inbertituko du, betiere inbertsio-mailako kreditu-kalitatea bada edo, txikiagoa bada, Espainiako Erresumaren unean uneko ratinga. Esposizio osoaren % 20k gehienez kalitate txikia izan ahalko du (BBB- baino txikiagoa). Inbertsio-ehunekoa aldatzeko, aktibo deribatuak erabili ahal izango ditu merkatu antolatuetan. Finantza-tresna deribatuen bidezko merkatu-arriskurako esposizioa ondare garbiaren zenbatekoko izango da, asko jota.
- >> **Arrisku-profila** Pentsio-plan hau inbertsio-profil kontserbadoretarako eta/edo estalitako kontingentziaren bat gertatzeko aurreikusitako epea 5 urtetik beherakoa dutenentzat da gomendagarria.
- >> **Arriskuak neurtzea** Azaldutako inbertsioek arrisku hauek izan ditzakete, besteak beste: merkatu-arriskua (errenta aldakorra), interes-tasaren arriskua, kanbio-tasaren arriskua, kreditu-arriskua, likidezia-arriskua eta finantza-tresna deribatuak erabiltzearen arriskua. Arriskuok neurtzeko parametro hauek erabiliko dira:
 Merkatu-arriskua: funtsaren hegakortasun urtekotua eta errenta aldakorrean inbertitutako ehunekoa.
 Kreditu-arriskua: zorroko tituluaren ratinga.
 Likidezia-arriskua: zorroan dagoen likideziazko ehunekoa.
 Interes-tasaren arriskua: planaren gehieneko eta gutxieneko iraupen-tartea. 0 eta 5 urte bitartekoa izango da.
 Kanbio-tasaren arriskua: euroaz bestelako dibisekiko esposizioa.
 Deribatuekiko esposizioa: ondare garbiaren gaineko esposizioa.
- >> **Etekin-helburua** Helburua da munduko burtsaren eta Europako zor publikoaren errentagarritasuna gainditzea, ehuneko hauekin:
 Errenta aldakorra: % 15
 Zor publikoa: % 85
- >> **Likidezia-koefizientea** Fondoak prestazioei aurre egiteko moduko likidezia-koefizientea izango du. Koefiziente hori ageriko gordailuetan eta gehienez hiru hileko mugaeguna duten diru-merkatuko aktiboetan egongo da.
- >> **Gainbegiratzea eta jarraipena egitea** Erakunde gestorearen middle office areak harturiko arrisku-maila kalkulatzeko eta inbertsio-politikan finkaturikoarekin bat datorren egiaztatzeko prozedurak ditu.
- >> **Indarraidea** Nahi adina

¹ Aseguruen eta Pentsio Fondoaren Zuzendaritza Orokorren erregistro bereziko identifikazio-zenbakia